

**3213/2025 EBAZPENA, abenduaren 3koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan Digestio Aparatuko zerbitziburua hautatzeko deialdian onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzeko dena.**

#### AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 12ko 1406/2025 Ebazpenaren bidez, Donostialdeko ESlan Aparatu Digestiboko zerbitziburua lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen (2025eko irailaren 4ko EHAA, 167. zk., eta 2025eko irailaren 11ko BOE, 219. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko urriaren 2an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen urriaren 9ko 1804/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitaratzen da onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESlan Aparatu Digestiboko zerbitziburuaren lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena. — Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2025eko abenduaren 3an.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea  
EB (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa)

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

 **DONOSTIALDEA ESI**  
**OSI DONOSTIALDEA**  
**MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO**  
**DIRECCIÓN DE PERSONAS**



## I. ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESiko APARATU DIGESTIBOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA.

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Alazne Aguirre García.

Baztertuen behin betiko zerrenda:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoa:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

## II ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESIko APARATU DIGESTIBOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA.

#### BALORAZIO BATZORDEA

##### Batzordeburua:

Titularra: Sara Arévalo Lobera andrea (Donostialdeko ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: María Eugenia Alkiza Eizagirre andrea (Bidasoako ESIko zuzendari medikoa)

##### Lehenengo batzordekidea:

Titularra: José Javier Zubeldia Caminos jauna (Donostialdeko ESIko zuzendariorde medikoa - arlo medikoa).

Ordezkoa: Jon Alexander Sistiaga Suarez jauna (zuzendariorde medikoa – Donostialdeko ESIko kirurgia-arloa).

##### Bigarren batzordekidea:

Titularra: Aitor Orive Calzada jauna (Barrualde-Galdakao ESIko Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Ordezkoa: Ignacio Casado Morentin jauna, Ezker-Enkart-Gurutzetako ESIko Aparatu Digestiboko zerbitziburua.

##### Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Cristina Rodríguez Gutiérrez (Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Ordezkoa: Antonio Cuadrado Lavín jauna, Marqués de Valdecilla Unibertsitate Ospitaleko Aparatu Digestiboko zerbitziburua.

##### Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatua):

Titularra: Ángel José Calderón García jauna (Bilbo-Basurtu ESIko Aparatu Digestiboko zerbitziburua).

Ordezkoa: Haritz Cortes Pérez jauna (Uribeko ESIko Digestio Aparatuko zerbitziburua).

##### Bigarren batzordekidea:

##### Idazkaria:

Titularra: María Pilar Sánchez Garduño andrea (Donostialdeko ESIko Pertsonen zuzendaria)

Ordezkoa: María Estrella Garrido Manzano andrea (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen zuzendaria).